



SELFIE LEHIAKETA EAN 2015

Selfie-Ea lehiaketan parte hartzeko baldintzak

Norberaren mobilarekin egindako "Selfie" deituriko autoerretretuen lehiaketa. Argazki hauek bakarka, taldean edo familian eginak izan daitezke baina Ea herriko txokoren bat agertu behar da atzean.

1. Lehiaketa adinez nagusiak diren Eako biztanle zein bisitari diren pertsona guztiei zuzenduta dago. Helburua herriko irudiak zabaltzea eta bere txoko politak *Selfie* autoerretretuen bidez ezagutaraztea da.
2. Argazkia derrigorrez Eako txokoren batetan aterata egon behar da. Argazkiak Selfie modalitatean aterata egon behar dira, hau da, sakelekoarekin ateratako bakarkako zein taldeko argazkiak.
3. Argazkia 688 864 654 telefonora edo eakobisitak14@gmail.com helbide elektronikora bidali behar dira, bertan izen-abizenak, NAN eta argazkia non aterata dagoen adieraziz.
4. Eako Udalak argazkiak Facebook-era igoko ditu eta handik internet erabiltzaileei bozketak egiteko aukera emango zaie gustokoen duten argazkia aukeratzeko.
5. Partaide bakoitzak gehienez 5 argazki bidali ahal izango ditu. Eako Udalak argazki kaltegarriak ez argitaratzeko eskumena izango du (errespetu falta adierazten dutenak, mingarriak...)
6. Bozka gehien jasotzen dituen argazkia izango da garailea eta Eako udalerriko turismoa bultzatzeko irudi bilakatuko da.
7. 2015eko urriaren 1etik aurrera, Eako Udalak garailearen izena www.eakoudala.net web orrian argitaratuko du eta emaila bidaliko zaio jakinarazteko.
8. Argazkian adin txikikoak agertzen badira egilea izango da legearen aurrean autore erantzulea. Autoreak dira bere lanen erantzule bakarrak eta autotreak izango dira edonork egin ditzakeen erreklamazioen erantzule.



Eako UDALA

9. Lehiaketan parte hartzeagatik argazkien eskubideak, komunikazio publikoak, erreproduzioak edota lanen banaketak doanik lagatzen zaizkio antolatzaileari.

LANAK ENTREGATZEKO EPEA

Lehiaketa 2015eko ekainaren 27an jarriko da martxan eta irailaren 30erarte aurkeztu ahal izango dira.

SARIA

Saria Eako ostatu batean asteburu paregabea (larunbat gaua) pasatzea izango da. Irabazlea berriz Eatar bat izanez gero sari modura bertako jatetxe batean bazkari/afari bat izango da. Honela, helburua Eako ostatu zein gastronomia turismoa bultzatzea da.

Oharra: Inplikaturako zerbitzu turistikoari (ostatu/jatetxea) komunikabideetako zein sare sozialetako publizitatea jasoko du doan.

EPAIMAHAIA ETA IRIZPIDEAK

Epaimahaia udal arduradunek eta turismoan espezializatutako Nueva Europa enpresak osatuko dute. Aukeraketa egiteko kalitatean, *selfie*aren originaltasun eta sormenean oinarrituko da. Herriaren izaera ondoen erakustea ere baloratuko da. Aparteko balioa izango dute Facebooken bidez jasotako herritarren botuek.

Puntuaketa 10era:

- Herritarren botuak, 4 puntu.
- Kalitatea, 2 puntu.
- Originalitate eta Sormena, 2 puntu.
- Herriaren izaeraren irudia, 2 puntu.

*Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.